
NOLA ETA ZERGATIK ERABILI COPYLEFT LIZENTZIAK

 XABIER BARANDIARAN

Autonomía Situada. Independent Research Center
autonomiasituada@sindominio.net

1.0 bertsioa

2003ko urriaren 3an

Copyleft lizentzia izenez ere ezagutzen diren dokumentu libreentzako lizentzia-mota batzuei eta horien erabilpenari buruzko gida txiki bat aurkezten dugu.

Copyright-Copyleft (C) 2003 Xabier Barandiaran. Dokumentu hau Creative Commons Attribution - NonCommercial - ShareAlike - v.1.0 lizentziaren mende dago: berau kopiatu, banatu, erabili eta gauzatu daiteke, betiere autoretza aitortzen denean eta merkataritza-helburuekin erabiltzen ez denean –autorearen beraren berariazko baimena eskuratzen ez bada behintzat. Autoreak dokumentu honetatik eratorritako obrak banatzeko baimena ematen du, obra honen lizentzia bera mantentzen bada behintzat. Ohar hau ez da obraren lizentzia osoa, ondoko helbide honetan aurkitu daitekeen jatorrizko lizentzia osoaren (juridikoki baliozkoa) ohar orientatiboaren itzulpen bat baizik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/1.0/legalcode>.

Zer da copyleft?

Dokumentu batean eskubide guztiak esplizituki publikoari lagatzen ez zaizkionean, “eskubide guztiak autorearen esku bakarrik” daudela eta publikoari ez diola eskubiderik lagatzen ulertzen da. Gauza bera gertatzen da copyright delakorik gabeko beste edozein dokumenturekin: izatez, eskubide guztiak autorearen esku bakarrik daude, aurkakoa adierazi ezean. Beraz, paradoxikoa dirudien arren, obren zirkulazio librea copyright modalitate bat (guk copyleft izenez ezagutzen duguna) erabiliz defendatzen da, eta EZ da defendatzen esplizitu egiteari uko eginez (“anticopyright” delakoen kasuan bezala).

Horrek esan nahi du, indarrean dagoen legediaren arabera, publikoari kopia-eskubideak (edo aldaketa-eta birbanaketa-eskubideak) bermatzeko, beharrezkoa dela eskubideen titularrak hori esplizituki adieraztea. Hori da copyleft delakoak egiten duena.

Hortaz, copyleft delakoaren estrategia da legediaz baliatzea copyrightari buelta emateko, copyrightaren terminoak hedapen, kopia eta manipulazio libre gisa zehaztuz; hau da, normalean copyright murriztaileak babesten dituen eskubideak inbertituz. Beste hitzetan: copyleft delakoa mekanismo juridiko bat da, zeinaren bidez copyrightari buruzko legedia ezagutzak, teknikak, informazioa eta artea libreki trukatzeko ahalbidetzen duen erkidego bat eratzeke eta defendatzeko erabiltzen den. Sindominio web orrialdeko [copyleft postaz-zerrendan](#) Espainia eremuko copyleft komunitatearekin zerikusia duten gaiak eztabaidatzen dira. Bertan, komunitatearekin zerikusia duen zalantza oro argitu eta jorratu ahal izango duzu.

Nola egin dokumentu bat copyleft izateko?

Hala ez badirudi ere, copyleft lizentziak erabiltzea oso erraza da. Nahikoa da copyleft modalitatearen pean lizentziatu nahi dugun dokumentuari ondoko testu hau gehitzea:

Copyright (c) urtea autorearen_izena. Lizentziaren_oharra.

“Urtea” jartzen duen lekuan dokumentuaren argitalpen-urtea adierazi behar da. “Autorearen_izena” jartzen duen lekuan dokumentuaren autorearen izena adierazi behar da, eta “lizentziaren_oharra” dioen lekuan copyleft lizentziaren terminoak adierazteko erabiltzen dugun oharra jarri behar da (ondoren juridikoki baliozkoa den lizentzia osorako lotura bat gehitzea komeni da).

Hori jartzearekin, dokumentua copyleft bilakatzen da automatikoki (betiere lizentziaren oharra copyleft

komunitatearen estandarrekin bat datorrenean).

Zenbait copyleft lizentzia mota

Copyleft lizentzia bat zehazteko modu desberdin ugari daude, askatasun-maila anitzekin eta horiek adierazteko modu desberdinekin. Hala ere, copyleft komunitatea eta software librearen sustatzen eta defendatzen dituzten zenbait kolektibo eta erakundek garatutako lizentziak estandar oso hedatu bilakatu dira horien errekonozimenduari eta diseinu juridiko egokiari esker. Jarraian labur-labur aurkeztu eta deskribatuko ditugu lizentzia horietako batzuk:

Creative Commons

Copyleft delakoaren defendatzaile den Lawrence Lessig jurista iparramerikarraren buruzagitzapean, *Creative Commons* elkarteak ezagutzaren eta ekoizpen intelektual kolektiboaren hedapen librearen zabaltzea eta horri buruzko laguntza juridikoa eskaintzea dut helburu. Elkarre horrek hainbat lizentzia garatu ditu; horiei esker, autoreak berarentzat gorde nahi dituen eskubide-motak hautatu ditzake. Mekanismo oso erraz baten bidez, lizentziaren 4 ezaugarri nagusiak hautatu daitezke, eta, automatikoki, juridikoki ezaugarri horiei erantzuteko diseinatutako lizentzia bat sortzen da. Autonomia Situada elkartearen Creative Commons elkarteko *Atribution -- NonCommercial -- ShareAlike* lizentzia hautatu dugu; lizentzia horrek autoretza aitortzea exijitzen du, libreki eta irabazi asmorik gabe kopiatzea eta banatzea ahalbidetzen du, eta obra eratorriak gauzatzean posible egiten du, betiere lizentzia bera mantentzen denean.

Creative Commons elkarteko web orriak bere lizentziei eta sorkuntza kolektiboko nahiz ekoizpen intelektualari dagokion lankidetzako eskubideei buruzko azalpen oso pedagogikoa eskaintzen du. Epe laburrean, lizentzia horiek itzuli egingo dira, eta tokiko testuinguru juridikoetara egokituko dira. Egun Creative Commons elkarteak eskaintzen dituen lizentzian legedi partikular ororekiko independenteak dira, nahiz eta edozein herrialdeko legedi-eremuetara aplikatu ahal izateko gehiago zehaztu beharko lirartekeen.

GPL (General Public License) eta GFDL (GNU Free Documentation License)

GNU proiektua (GNU is Not Unix) eta FSF fundazioa (Free Software Foundation) aitzindariak dira software librearen eta, bereziki, GPL (General Public License ---softwarearentzat erabilia) eta GFDL (GNU Free Documentation License --- software librearen dokumentazioarentzat garatutakoa) lizentzien sustapenean eta defentsan. Bi lizentzia horiei esker librekin banatu eta kopiatu daiteke obra (softwarea edo dokumentazioa), irabazi asmoz nahiz irabazi asmorik gabe, eta, era berean, obra eratorriak ahalbidetzen dituzte, betiere lizentzia bera mantentzen denean. Software librearen eremuan hedapen handiena duten lizentzia dira horiek, baina dokumentazioari dagokion lizentzia (GFDL) ez da beti egokiena beste dokumentu-motetarako (dokumentu artistikoak, iritziak, eta abar). FSF/GNU lizentzien web orriak lizentzien buruzko informazio zehatz ugari eskaintzen du. GUGS delakoak (Sindominio orriko GNU erabiltzaileen taldeak) GPLren eta GFDLren hainbat itzulpen eskaintzen ditu (itzulpen ez ofizialak ---FSF ez da bertsio itzulien legezko erantzulea).

GNU eta FSF elkarteek copyleft pean lizentziatzen ditugun testu guztiei lizentzia osoa atxikitzea aholkatzen dute, eta ez dute gomendatzen lizentziaren online bertsiorako lotura ezartzea (sareko informazioa ez delako egonkorra, eta etorkizunean aldaketak egon daitezkeelako).

Autonomía Situada elkartearen GPL lizentziaren edo antzeko beste lizentzien mendeko Software Librearen bakarrik erabiltzen dugu, eta programa informatikoen zirkulazio librearen eta garapen kolektiboaren aldeko apustua egiten dugu. Ildo horretan, guk ekoiztutako programa guztiak GPL lizentziaren mende jartzea erabaki dugu.

Art-libre

Art-libre lizentzia izaera artistikoko ekoizpenetarako dago pentsatuta. Aurreko lizentziekiko desberdintasun txiki batzuk ditu, baina erabat copyleft da. Frantzia sortu zen ("copyleft attitude" proiektutik) eta gaztelaniara ere itzulita dago.